

INPOSIZIORIK EZ!
GUK, ORAIN, HEMEN
GURE HEZKUNTZA ERAIKI

Datorren larunbatean Hezkuntza Plataformen Topaguneak euskal hezkuntza propio eta publiko baten aldeko mobilizazioak egingo ditu Hego Euskal Herriko lau hiriburuetan. Mobilizazioetan salatuko dute baita ere, LOMCE legea erabat sartuta dagoela Euskal Herriko hezkuntzan naiz eta artikulatu batzuk ezabatuak izan diren edo zalantzan dauden. Hezkuntza Plataformen Topaguneak Euskal Herriko hezkuntza sistema propio bat aldarrikatu du, euskal eragileen artean eraikitakoa eta gaur egungo sistema arrotz eta inposatzailea gaindituko duena. Bilboko hitzordua 17:00etan izango da Bilboko Zabalburu plazan. Barakaldoko Hezkuntza Bilguneak bat egin du mobilizazioarekin eta 16:30ean geratu dira Elkanoko metro geltokian Bilbora joateko.

hezkuntza plataformen TOPAGUNEA

INPOSIZIORIK EZ! GUK, ORAIN, HEMEN GURE HEZKUNTZA ERAIKI!

Pasatu da uda eta hasi dugu ikasturte berria. Berria izanik ere, zaharrak berri. Izan ere, tamalez, euskal hezkuntzarentzat ez dago berri askorik. Badakigu LOMCE gure ikastetxeetan erabat sartuta dagoela. Nahiz eta lege inposatu horren atal batzuk atzeratu edota zalantzatan jarraitzen duten, Nafarroako Erregimen Gebernuak utzitako herentziaren ondorioz eta Eusko Jaurlaritzak LOMCE aplikatzen jarraitu dute.

Argi utzi genuen iazko ikasturtean burutu genuen planto masiboarekin. Nafarroako Txantrea auzoko itxialdiarekin hasi eta apurka apurka Hego Euskal Herri ikastetxe mordo batean plantoa egitea erabaki genuen. Hezkuntza komunitatea elkarlanean, azterketa atzerakoi, inposatu eta antipedagogiko horiei planto egin genien. Berriz ere zorianak guztioi!

Ez dugu LOMCE nahi eta ez dugu momentuz LOMCE aplikatzen duen Heziberri-rik nahi ere. Guk Euskal Herriko Hezkuntza Sistema Propioa nahi dugu. Egungo eredu arrotza gainditu eta gure hezkuntzaren gaineko erabakiak guk geuk hartu nahi ditugu, gure ikastetxe eta herrietatik. Horregatik, nekatuta gaude, inposaketei aurre egiten jarraituko badiegu ere, bada garaia gure hezkuntza eredu egunez egun eraikitzen jarraitzeko. Eta baditugu aukerak, gogoia eta proiektuak. **Baditugu alternatibak eta urriaren 24an, Bilbon, Alternatiben Herria ekimenean erakutsiko ditugu batzuk. Eraikuntzara salto egiteko unea da!**

GUK Guk egingo dugulako, inork ez digu ezer oparituko. Gu gara protagonistak: ikasleak, familiak, hezitzaileak, langileak, auzoko edo herriko okina, postaria, autobus gidaria, garbitzailea... Gure gogo eta kemaz bestelako hezkuntza eredu bat eraikitzea gure esku dago!

ORAIN Bada garaia. Urte asko daramagu frantzia eta espainiaren menpeko hezkuntza sistemetan. Orain da unea inposatzen dituden hezkuntza eredu inposatuari planto egin eta bestelako hezkuntza eredu bat eraikitzen jarraitzeko. Biharko egunera itxaron gabe, astiro baina gelditu barik, gaurdanik gure hezkuntza eraikitzeari ekin behar diogu!

HEMEN Klasean, ikastetxean, auzoan, herrian, plazetan, udaletan... Euskal Herri osoa busti behar dugu eta horretarako gero eta gehiago izan behar gara Hezkuntza Plataformen Topagunean saretzen garenak. HPT hezkuntza bilgune ezberdinak saretzeko tresna bezala jaio zen, eta horrela jarraituko dugu. Gure asmoa, Euskal Herriko bilgune ezberdinak saretu eta bestelako hezkuntza eredu baten alde, hemen, Euskal Herrian, erabakitakoa eraikitzea da!

AZAROAK 28 · ARABA · BIZKAIA · GIPUZKOA · NAFARROA

10:00 · IRUÑEA · (BIURDANA) · ASANBLADA IREKIA + ELKARTERATZEA 11:00
17:00 BILBO (ZABALBURU PLAZA) · DONOSTIA (BOULEVARD) · GASTEIZ (FORU PLAZA) KALEJIRAK

